

### Euskarazko sailean bigarren saria

Istoria apala baina originala da, postal baten bidaia kontatzen duena. Ahapaldiz ahapaldi bidaia kronika kontatzen du, egungo gizartean daukagun arazo baztertu bati bidenabarrez erreferentzia eginez. Garapena oso bizia ez bada ere, oso amaiera ona du, indartsua.



FOTO ANTONIO ORTEGA

Arantza Sorondo

# ZIMURDURAK



#### ■ 1.- APALEAN EGOTEAZ ASPERTURIK

"Zihurrenik, laster gertatuko da. Oraintxe?... Geroxeago? Ez nuke beranduago gertatzerik nahi, ez. Nire egonezina handiegia da denboraren eskuetan uzteko"

Burutazio horietan ari zen, erne-erne zegoen Budaren bi begi esanguratsuak bere gainean inprimaturik zeuzkan kartoizko puxketa hura. Dozena bat zentimetro luzera eta ia beste hainbesteko zabalerako neurria zuen, alde batetik bi begi handiak eta bestetik marra batzuk zeramatzan mundu-mundialeko postal familiarako kidea zenak eta ziur zegoen iristen ari zitzaiola bere bizitzako abentura hasteko unea.

Ez zen gogoratzen zenbat denbora zeraman Katmanduko dendatxo hartako erakustokiko apalean. Zekiena zen, biki asko zituela eta beraien patuak, mezuak, norantzak... arras ezberdinak izan zitezkeela. Zalantza horrek, bere urduritasuna areagotzua besterik ez zuen egiten. "Noraino iritxiko ote naiz? Zer nolako mezua eramateko aukeratuko naute?. Non gordeko naute?" Entzuna bait zuen postal batzuk zakarretan bukatzen zutela; beste batzuk pareta batean zintzilik jartzen zituztela; liburu tartean sartzen zituztenak ere ba omen zeuden eta kristal tartean jasotzen zituztenak ere. Burutazioak burutazio, urduritasuna sartu zitzaion atzeko aldean ere eta hango marrak eta hizkiak dantzan bezala sentitu zituen.

Goizero bezala, Katmanduko Thamel auzoko kale zaratatsu bateko dendariak ateak zabaldu eta jira biraka erabiltzerik zegoen postal erakusgailua kanpokaldera eraman zuen. Kaleko giroa gero eta zaratatsuagoa bilakatzen ari zen. Gero eta kanpotar gehiago zebiltzen, kalean gora kalean behera, dena ikutu eta ikusi nahiean bezala.

Halako batean, hiru gazte inguratu eta bat, neska, Budaren begiak zituen postalari begira begira geratu zitzaion, txoriak sugeari liluratuta begiratzen dion bezala eta betazalak arinki mugitu zituen, begietan nabaritzen zitzaion poza eta tristuraren nahasketa uztartu nahiean bezala. Aukeraketan ez zen nahasi eta lagunek postal mordo bat eskuratu zuten bezala, neska bakarri erosi zuen: Budaren begiak zituena. Plastikozko estalgarri batean kokatu zuen kartoizko begidun puxketa eta gerrian zeraman poltsatxoan tentu handiz sartu eta kalean gora abiatu zen.

Postalak berriz, zirrara ez ezagun bat nabaritu zuen bere baitan. Heldu bait zen bere ametsetako eguna. Bestalde, zalantza beteriko etorkizunak ere biziki kezkatzen zuen. Bainan, zer

arraio! Arriskurik gabeko bizitzak ez du zentzu handirik -pentsatzen jarraitu zuen- eta gerta zitekeenari aurre egiteko prest sentitu zen, indar berriturik bezala.

#### ■ 2.- POLTSATXOTIK MOTXILARA

Ez zekien zenbat denbora igaro zuen poltsatxoan, patxada eder hartan... bainan berehala ohartu zen goxotasuna bukatzeaz zegoela. Konturatzerako, neskak, poltsatxotik atera eta plastikozko kupela gogor batetan sartu zuen; beheko aldean sartu ere. Aldamenean zeuzkan libururen baten barruan sartu balu sikera! Bainan, ez! Gainera bere ondo-ondoan kokatu zuena pioleta gogor eta hotz hura izan zen. Eskerrak ondoan zeukan jertse lodiarri. Nola jasan bestela burni haren harropuzkeria?

Zarata jasanezina somatu zuenean konturatu zen helikoptero batean zihoaztela. Mendizale artean zegoen eta mendi giroan ibiliko zela pentsatu zuen.

Halako batean eta oraindik erdi zorabiatuak aurkitzen zelarik, kupelak atera eta abere beltz hiletsu eta adar zorrozduen batzuen bizkar gainetan jarri zituzten. Yak izeneko abereak ziren. Beraz, Himalaian aurkitzen ziren eta mendizale hirukotea, sherpa taldea eta zama-garraiatazaille multzo bat, tipi-tapaka hasi ziren bide eta bidexkak zeharkatzen eta herrixka eta herritar anitz agurtzen. Namaste! Namaste!

Gisa horretan, hamar bat egun igarota gero, gure postala leher eginda aurkitzen zen. Zapalduta, zimurtuta...

"Katmanduko dendatxoko apalean, eguzkiak kolorerik gabe utzi arte geratu banitz"-bururatu zitzaion. Bainan, zer demontre! Mendizale ausarten pareko izan nahi zuen. Horrela lasaitu zen pixka bat eta beste denboralditxo bat geldirik eduki zuten kupe-laren barruan.

Goiz batez, mendizale taldean mugimendu berezi bat somatu zen. Ordurarte gorde-gordean edukitako tresna eta tresna ondokoak atera eta leku ezberdinetan kokatzen hasi ziren eta motxila handiak hartuta maldan gora abiatu ziren. Neska ez zen postala hartzeaz ahaztu eta liburu baten barruan kokatu zuen oraingoan kartoitxo zimurtua eta maldan gora abiatu Everesteko oinarriko kanpamendura iritxi arte. Betirako utziko ote zuen barruti hartan?

#### ■ 3.- NORA GOAZ?

Hurrengo egunetan, mendizaleek egindako bizimoduaz ez zen batere jabetu. Goxo-goxo zegoelarik, hor non somatu zuen

berebiziko zalaparta eta konturatu zenerako, mendizale eta sherpek kopetean zeramaten argiontzien argiaz inguraturik aurkitu zen. Erdi itsututa geratu bazen ere, inguruan zegoen tentsioaren jabe egin zen postaltxoa eta hotz handia nabaritzen hasi; baita kanpoko iluntasuna, bakardadea... Ez zebilen oker: egun handia heldu zen; gorantzago abiatzeko eguna eta berak, kartoi puxka zimur hark, Budaren begiez ornitutakoak, beraiekin egingo zuen bidea. Ohore bat bezala hartu zuen eta neskaren motxila barruan sentitu zenean, juxtu bizkar aldeko lekuan, estu-estu eta adi adi geratu zen neskaren bihotz taupaden zaindari moduan.

Abiatu zen taldea. Besteak beste, elurra izotza, malda ikaragarria eta haize zuten hotzaren aurkako borrokan murgildu ziren eta bihotz taupadak biziki bizkortu zitzaizkien mendizale kementsu haiei.

Halako batetan, neskak, mugimendu berezi bat egin zuen eta bere bizkarra motxilaren kontra estuago jarri zuen. Postalak zirrara berezi bat sentitu zuen. Zertaz edo nortaz gogoratu ote zen mendizale ausarta?

Batek daki zenbat denbora igaro zen gorantzako ahaleginean. Ziurrenik, eguzkia ere han izango zen mendizaleen saiakeraren lekuko. Motxila barruan, den-dena ilun zegoen.

Bihotz taupaden hotsen artean, pioleta-kranpoiez lagunduta, sinfonia berezi bat jartzen zuten: Krass! Krass!...Tak! -burnizko tresnak.

Taup! Taup!... Uf! -neskaren bihotzak eta arnasak- Noiz behin, segundu gutxitako atsedena hartu eta berriz ere sinfonia berdina:

Krass! Krass!... Tak!

Taup! Taup!... Uf!

Halako batetan, postaltxoak kolpe galanta hartu zuen, lurra-  
ren kontra; izotzaren kontra, hobeki esanda. Neska erori ote zen? Ez horixe! Tontorrera heldu berria zen taldea eta motxilan erantzi eta den-denak (hirukotea eta sherpak) besarkada estu batetan lotu ziren. Munduko gailur garaienean zeuden!

Neskak tentu handiz atera zuen postala motxilatik eta mendizaleen eskuetan kokatua izan zen, eskularru lodien gainean.

Goxotasunetik tamaina hartako giro hotzera atera zutenean, bere bukaera gertu zegoela sentitu zuen postalak. Gogo-gogor geratzen ari zen eta ez zen jabetu zer idatzi zuten bere atzeko aldean, ezta nori idatzi zien ere. Nahikoa lan izan zuen bere bizkar izotzua puskatu gabe mantentzen. Une batean, haizeak eraman zuela amestu zuen. Edo... aluzinazioa izan zen? Agian, mendi garaiko gaitza ezagun hori? Hotza, jasanezina egiten ari zitzaion eta beldurra eta zimurretako oinazea gailendu zitzaizkion. Mendizaleek muxu bana ezarri zutenean idatzita zegoen lekuan, haien begietan dizdira berezia atzeman zien, negar mal-koak eutsi ezinik baleude bezala.

Ikusiak ikusita eta motxilan sartu zutenean berriro, mendizale asko maite zuten norbaitengana bidalia izango zela ohartu zen eta horrek etsipenaren zulotik irteteko indarra eman zion. Batek zekien aurrerantzean zer gerta zitekeen bainan edozer jasateko prest sentitu zen.

Aldetik aldeko zirrarak ikutu zuen goitik beherako bidea hartu zutela konturatu zenean eta estu-estu kokatzen saiatu zen, neskak motxila barruan sartu zuenean. Auskalo zenbat denbora igaro zuten jeitsiera arriskutsu hartan. Gogoratzen zuena, haizearen txistua, kranpoi eta pioletaren hotsak eta nola ez, neskaren bihotz taupadak, alafede!

#### ■ 4.- NORA NARAMATE HEGAZKINEZ?

Hotza, egonezina, zimurretako mina... nahiakoa gaingintuak zituen berriro postalak argia ikusi zuenean. Katmandun zeuden; bertako postetxean hain zuzen.

Rupia batzuen truke eta azken igurtziak eman ondoren, neskak, postariaren eskuetan utzi zuen postal zimurtua.

Postariak jaso zuenean, kolpe bat ematea izan zen egin zuen lehenengo gauza. Zigilu bat jartzeko modu bortitz hura, neskari agur emateko modu berezia iruditu zitzaion. Okerrena, beste postal eta esku-  
titzekin ez jartzeara izan zen. Zerbait deigarria

ikusia izango zuen postariak (zimurregia ote zegoen?). Ondo begiratu ondoren, txoko batean utzi zuen. Postal bilduma egiten duten horietakoa ote zen gizon hura? Paseak pasa, postalak ez zuen horrelako bukaerarik nahi.

Gisa horretan igaro zituen gau eta egun bukaezin haiek. Etsipenak jota, jasandako nahigabe guztiak ekarri zituen gogora. Horrelako trantzeak pasa eta itxaropena eta harrotasunaren jabe izatea iristen ari zenean... hara non, postetxeko apal erdi izkutu batean utzita izan zen. Hautsak jango ote zuen?

Goiz batez, postaria lanera etorritakoan, apalean zeukan postala eskuetan hartu eta begirada bat bota zion beste begirada zakarrontziari botatzen ziolarik. Oh! Ez! Etsipenaren mamua berriro ate-  
joka. Gehiegi!

Lasaitasun ederra hartu zuen postalak "Europa" jartzen zuen zaku baten barrura bota zuenean.

Postetxetik, aireportura. Hemen, hegazkin batetan sartu dute beste kide askorekin batera; bikiak ere tartean. Beraien itxura txukunagoa bada ere. Zimurdunetan zimurrena da bera. Konturatzen hasi da bere zimurrak arrasto esanguratsuk direla; sufrimenduak, ezinak, irriak, kezak... bizitza sakonki bizitzeak sortutakoak direla azken finean. Harro sentitzen hasi da eta ederra gainera. Etsipena itxaropen bihurtzen ari da bere baitan.

Ordu askotan jasandako hegazkinaren hots ikaragarria amaitu da- Orain mugimendua hasten da. Postaz betetako zakuak eskuz-esku, garraioz garraio erabili dituzte: gurditxoan, kamioiean, trenean... Hau eromena!

Moto bateko poltsan sartu aurretik, bulego batetan eduki dute gure postala; beste postetxean. Hor jakin du itsasotik gertu dagoela eta baita Afrikatik ere.

Motoan egindako bidaiak laburra izan da eta postontzi batetan sartu dute bera, beste esku-  
titzak eta postal gehiagorekin batera, esku zakar batek hartu eta gela batetara eraman dutenean, konturatu non dagoen eta lur jota geratu.

Hainbeste nahigabe pasa ondoren, non bukatuko bere zimurak eta guzti eta... Cadiz-eko Puerto de Santa Maria-ko espetxean! Bera, postal zimurtua, libre izateko jaioa zela uste zuenean... Ai!... Everesteko haizeak eraman balu!

Haizeaz gogoratzerakoan, tontorrean gertatutako guziak, oroi-  
mena eta itxaropenaren txokoak zabaldu dira postaltxoaren baitan. Ez da kikilduta geratzeko unea, ez horixe!. Mendizaleen mezua dakar eta bere betebeharra burutzear dago.

"MADI ATIAZARAN" ;(ohiukatu du preso-  
zainak). "Por eta vé paza! Pero hay que escribi en critiano. Cagüen!"

Maddik, amen batean jaso du postala eta bularraren kontra estutuz, presaka sartu da ziegan. Han, hexkaren gainean eseri eta urduritasunez begiztatu du idatzitakoa. Lagunen izenak ikusi ditu. Postalari muxu handi bat eman eta lasaiago irakurtzen hasi da. Lehenengo aldiz, isilik; ozenki bigarrenez. Postalak, zirrara berezi bat sentitu du- Ez da gutxigorako.

*Aupa Maddi!- dio idatziak.*

*Postaltxo honetan, Everesteko gailurrean laztandu gaituen haize hotz eta askearen arrastoa bidaltzen dizugu, gure maite-  
suzaren beroaz estalia.*

*Zenbat maite zaitugun, Maddi!*

*Muxu goxo bat zuretzat. Ikusi arte.*

Negar zotinka bukatu du Maddik irakurketa eta pake berezi bat, lasaitasun berezi bat sentitu du barnean.

Ziegako mahaintxoan tente dauden bi liburuen artean kokatu du Maddik postal zimurtua; arte handiz kokatu ere. Ixkin bat besterik ez da izkutatzen liburuen artean eta horrela, postalaren bi aldeak ikusteko moduan utzi du; idatzia bistan eta baita Budaren bi begiak ere.

Nahigabeak nahigabe, zimurrak zimur... jasandako guztia MEREZI IZAN DU! Maddi eta postala begira-begira geratu dira. Neskari, Budaren begiek keinu egin diela iruditu zaio, ziegako lehiotxotik haize bolada bat sartu den uanean.

Haize bolada berezia iruditu zaie bi lagunei. Everestetik heldu ote da? □